

LEZO

Herri Eskola

3 URTEKO
HAURREN
EZAUGARRIAK

Agur, guraso horiek


Ondoan duzuen txosten honetan heziketako etapa honetan haurrek dituzten ezaugarriak bildu ditugu. Txostenaren helburua gure lanean ezinbestekoa den informazioa zuei helaraztea da, zuen seme-alabak hobeto ezagutzeko bidean gida bezala erabil dezazuen.

Dena den, zera hartu behar dugu kontuan: haur guztiek ez dute garapen prozesuan erritmo berdina eramaten eta honengatik denek ez dituzte hemen azaltzen diren ezaugarriak aldi berean betetzen. Txosten hau irakurri eta gero kezkaren bat sortzen bazaizue, ez izan zalantzarik guregana jotzeko.

Zuen seme-alaben heziketan baliagarria izatea espero dugu.

3 URTEKO HAURRAK

- Beren ahalmenaren barruan dauden lan txikiak egitea atsegin zaie.
- Zer edo zer nahi dutenean une labur batez itxaroteko gaitasuna izaten hasten dira.
- Une batetik bestera aise aldatzen dira aldartez. Frustrazio txiki bat kasketa bihur daiteke. Helduak lasai eta tinko egon daitezela eta sendotasunez ezetz esan diezaietela behar dute. Zer egin dezaketen eta zer ez jakin behar dute.



- Adin honetan haurrek esfinterrak kontrolatzen dituzte, baina noizean behin "istripuren bat" izan dezakete oraindik.
- Komunera bere kabuz joaten, bakarrik jaten eta jan nahi dutenaz, arropaz... beren iritzia ematen hasten dira.


BAINA, KAKA DA ETA!!!



- Aldez aurretik prestatzen baditugu, ondo moldatzen dira banantzera. Aurretik esaten bazaie eta gurasoengan konfiantza badute, haurrak segur sentitzen dira.
- Segurtasuna ematen dieten objektuen (jostailuak, peluxeak...) beharrea segitzen dute. Kontu handiz poliki-poliki kendu behar dira, ondoezik daudenean soilik erabiltzeko gordeaz.
- Mundura ateratzen eta gurasoengandik edo hobeto ezagutzen duten pertsonarengandik une laburrez banantzera ausartzen dira. Lagunak egiten eta familiarik kanpo helduekin eta haurrekin emoziozko loturak sortzen hasten dira.




- Beren buruaz gero eta seguragoak sentitzen dira, baina batzuetan leku edo pertsona ezezagun baten beldur izaten dira. Gainera, hain murgilduak daude fikzio, fantasia, irudimenarekin jolasean, ezen ez baitituzte batzuetan errealitatea dena eta ez dena bereizten.
- Zenbait gauza errealen beldur ere izan daitezke: batzuetan, ezaguna duten leku batera (igerilekura, eskolara...) joateak ere beldurra ematen die. Baliteke erabat ondo ez sentitzea: marranta, nekea...




- Mintzaira komunikatzeko erabiltzen dute.
- Hitz egiteko eta imitatzeko norbait behar dute.

- Jolasak beren ekintzaren erdigunea izaten segitzen du. Objektua partekatzeko gai izaten hasten dira.
- Ekintza fisikoekin atsegin hartzen dute, baina garaiz geldiarazi behar dira, neke-neke eginda buka ez daitezten.



- Margotzea gustatzen zaie. Formak eta irudiak sortzen hasten dira. Berariazko asmoaz marrazten dituzte gauzak.
- Kantak mimikarekin batera izatea gustatzen zaie, imitatzeko plazeraz gozatuz.



LEZO

Herri Eskola

CARACTERÍSTICAS
DE LOS NIÑOS
DE 3 AÑOS

Estimad@s madres y padres

En el trabajo que se acompaña hemos reunido las características de l@s niñ@s de esta etapa educativa. El objetivo de este trabajo es haceros llegar una información que en nuestra labor nos es imprescindible, con el fin de que os sirva de guía para el mejor conocimiento de vustr@s hij@s.

De todas formas, hay que tener en cuenta que no tod@s l@s niñ@s llevan igual ritmo en el proceso de desarrollo y por ello no tod@s reúnen al mismo tiempo las mismas características que aquí se indican. Si una vez leído este trabajo os surge alguna cuestión, no dudéis en dirigiros a nosotr@s.

Esperamos que este trabajo os sea de utilidad en la educación de vustr@s hij@s.


LOS NIÑOS DE 3 AÑOS

- Les causa placer llevar a cabo pequeñas tareas que entran dentro de su competencia.
- Empiezan a tener capacidad para esperar un tiempo corto cuando desean algo.
- Cambian fácilmente de humor de un instante a otro. Una pequeña frustración termina en rabieta. Necesitan que los adultos se mantengan tranquilos y firmes y que se les diga "no" con firmeza. Necesitan saber lo que pueden hacer y lo que no pueden hacer.




- A esta edad l@s niñ@s controlan los esfínteres, pero aún pueden tener "un accidente" de vez en cuando.
- Empiezan a ir al retrete por su cuenta, a comer sol@s y a dar su opinión sobre lo que quieren comer, sobre la ropa...

- Se adaptan bien a una separación si se les prepara. Si confían en las madres y padres y se les dice con antelación, l@s niñ@s se sienten segur@s.
- Siguen necesitando de objetos segurizantes (juguetes, peluches...). Con tacto se deben ir retirando poco a poco y reservarlos sólo para cuando no se sienten bien.
- Se aventuran a salir al mundo, a separarse por cortos períodos de tiempo de las madres y padres o de la persona que mejor conocen, y empiezan a hacer amig@s y a crear vínculos emocionales con adult@s y niñ@s fuera de la familia.



CADA UNO
ESCRIBIRÁ UNA
CARTITA A UN
AMIGO SUYO...



- Se sienten cada vez más segur@s de sí mism@s, pero a veces tienen miedo a un sitio o persona desconocida y además están tan inmers@s en jugar con la ficción, con la fantasía, con la imaginación, que a veces les cuesta distinguir lo que es real de lo que no lo es.
- También pueden tener miedo de ciertas cosas reales: a veces incluso temen ir a un sitio que les es ya familiar (piscina, escuela...). Puede ser que no se sientan del todo bien: catarro, cansancio....



- Utilizan el lenguaje oral para comunicarse.
- Necesitan tener alguien con quién hablar y a quién imitar.

- El juego sigue siendo el centro de su actividad. Empiezan a ser capaz de compartir el objeto.
- Gozan con la actividad física pero hay que pararles a tiempo para que no terminen agotad@s.

¡BASTA DE ESTOS JUEGOS!
¡HOY LAS NIÑAS DEBEN JUGAR
CON LOS MISMOS JUGUETES
QUE LOS NIÑOS!



- Les gusta pintar. Empiezan a crear formas y figuras. Dibujan cosas con intencionalidad.
- Les gusta que las canciones vayan acompañadas de mímica, disfrutando del placer de imitar.